

EPAI MAHAIKO BATEN GOGOETAK ARABA ETA BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETAZ

Gero eta gero ere bertsolariak eurak dira kantatzen dutenak; esatekoak esan behar dituztenak. Eurck dute bai azken hitza, baina artista paregabe horiek beti inoren esanera; inork mugatuak edo eta, gutxienez, bideratuak nahiz gidatuak.

Pentsakor, astiro oltzako eskailerak igonik, bakoitza bere eserlekura doa barneko artegasuna estali nahirik. Hartara egina izateak, eskarmentuak, ofizioaren berri jakiteak ematen dien patxada dute alde; baina mikrofono aurreko lehiaren nondik norakoa ez ezagutzearen larria aurka. Beste edozein artistak bere emankizuna goitik behera taiatua izan ohi duen bitartean, bertsolariak bat-bateko auzi eta lehiari ekin behar dio. Alboko mikrofonotik igortzen zaizkien aginduetara zain-zain egon behar, handik zer jasoko, berehalaxe kantari hasteko. Gaijartzailearen nahiz aldameneko bertsolariaren enbidoari entzungor egiterik ez dago. Ihardespena eman behar ahal bezain egoki, xegundoe-tan moldaturiko ihasdespena, bertsogintzaren arau estu bezain harrigarritz ondua, eman ere.

Kritikak eta eztenkadak

Bada gure artean, intelektual airea bere buruari emanetz, harropuzturik inorena eta geurerik geurena ere gaitzesten ari-

tzen den ipurterrik. Norbaitek, -merezi al du izenik aipatzerik?- nabarmenki salatu du bertsolaritzaren inguruko giroa. Bertsolaritzari bere ustez egotzi ohi zaizkion gehiegizko laudorioak ezin irentsirik, behazunaren garratzasuna hortxe isuri nahi izan digu. «Abusoa», «masokismoa» eta abar aipatzen dira. «Emily» eta «Olagarroa» liburuen aurkezpenean, literatura idatziaren



ikuspegitik, (ikus 1987.eko Azaroaren 1eko ARGIA) bertsolaritza-sailean uxarka hasi zaizkigu lau gizon, artegintza eso eta beraiek esaten dutenez, gehien-gehienez ere artisautza den honen azpian egon daitekeen arruntkeria astindu nahirik edo...

Ulegaitza dena zera da: zerk eragin dion laukote honi literaturazko bi liburuaren aurkezpenean bertsolaritzaz hain funts gabeki sartzera. Patxi Perurena, Jon Juaristi, Mario Onaindia eta Jon Kortazar-ek osotzen dute laukotea. Horra izenak agerian! Patxi Perurenari bertsoa aski etxeko gertatzen omen zio familiako tradizioz; halabaina «artisautza» hori hurbilean izan badu

ere, ez zaio barneratu eta gogoko ere ez zaiola dirudi. Hasteko, bertsolaritzaren historian esjakina dela aitortzen digu... Gainerako hirurak, gai honetaz, lekuz kanpo ari dira: mahai baten inguruan bildu eta itsumutsuan mintzatzeari ekin diote, isilik ez egotearren. Mahai baten inguruan eseririk, otordu bat egiteko edo eta musean jolasteko ez da prestakuntza berezirik behariko, baina kultura-gai batetaz trakeskeriarik jaulki gabe, behar bezala mintzatzeko bai.



Patxi Perurenak, Nafarroako bertsolari txapelketaren finalean taiuzko bertsorik ez zuela entzun dakar argudiotzat. Inork ez du ukatuko jaialdi kaxkarrak ere izaten direnik noizbehinka, baina horiek, zorionez, gutxienak izan ohi dira. Behar bezalako kritikak bertsolaritzari mesede baizik ez dio egingo; baina gaur egun bertsolaritzak lortu duen maila ikusirik mesprezuka ari-tzeak kritikagileen kaxkarkeria baizik ezin du adierazi.

Zenbait bertsolarik, bakarreko saioan, gogoko gaien bati

heltzen diotenean lortzen duten goidura harrigarria, entzulegoa zeharo hunkiturik utzi eta bertsoa eta olerkiaren arteko muga ezabatzerainokoa izan ohi da. Baina bertsoaren emaitza anizkorrera da. Ez da bertso hunkigarri, sakon eta distiratsu horietara mugatzen soilik; zirrikada, umore gazia daria, ironia garratzez nahiz politzez jantzia ere bada; ofiziotan dialektika zorrotzez albokoaren esanari ihardestekoa, puntutako jolas arin, etorritsua; koplaka aritzearen gazitasun txanbelina. Ez dira gutxi bat-bateko edozein ariketara egoki moldatuz gainera, honelako saio motaren batetan benetako maisu direnak. Izenik ez du emango, baina horiek guztien gogotan daude.

Behin honez gero, gaia bere giroan kokatu dudalakoan, Araba eta Bizkaiko txapelketari lotuko natzaio ondoko lerroetan.

Entzulegoaren artean jarrera ezberdinak

Txapelketara joan ohi den entzulengoaren artean jarrera ezberdinak izan daitezke eta izan ere izaten dira: txapelketak une batzutan lortu ohi duen distirak erakarririk doazenak; lchiaketaren suak, norgehiagokaren trantze goriak hartaratzen dituztenak; atsegin zaien artegintzan edo... «artisautzan» izpiritua gozatzera doazenak. Egia esan, azken aipaturiko jarrera hau entzulcen arteko gehiengoaren kasua izango da, agian. Artegintza hau, ekintza kultural eta ludikotzat jotzen dela esan nahi nuke, bertsolari eta entzulegoaren artean ezinbesteko harreman estua ematen delarik. Gehien eskaintzen dutenak bertsolariak eurak dira, baina entzulengandik jaso ohi dute une bakoitzean oneritziaren saria, eskerrona, txalo-hotsean adierazten den herriaren arnasa beroa...

Epai mahaiaren zeregina

Jarrera ezberdinak aipatu ditugu goraxeago. Bada txapelketara doazenen artean bestelako jarrera berezirik ere: mahai apros batetan eseririk, entzumena zoli, adimena zoliago, neurketaren nondik norakoa zehatz-mehatz adierazi behar duten jaunena; epaileena, alegia. Epai mahaikoak, izpiritua gozatu eta une atse-

gingarria igarotzera baino areago euren egitekoa betetzera, eba-
luaketa albait zuzenen burutzera joan ohi dira. Txapelketa hone-
tan epaileak bertsolarien botoz hautatuak izan ziren. 15 izeneta-
tik 6. Ni neu ere sei hautatu horien artean nengoen eta epaile-
ikuspegitik zenbait ideia borobildu nahi nituzke.



Bertsolari jakin erazteko aurrez ohar batzu egitea erabaki
genuen. Mandamenduak edo... Azkenez zeuden-zedenean ber-
tsolariei aurkezteko luzeegi geratzen ote siren edo, eta gaiartzai-
leak berak adierazten zizkien hitz gutxitan. Hona epai mahikoen
paper horrek zioena:

«Bertsoren muina batetik eta azala (neurria, errima, etena, doinua) bestetik. Bertsoren muina eta gaiari nola heltzen zaion kontutan izanez gainera, honako hauek ere ez dira nolana-
hi ahaztekoak gure eritziz:

1. Diptongoak behar bezala ebaki. Adibidez *gaur* (silaba bakarrean); eta ez «ga-ur» (silaba bitan).

2. Ahozko tradizioari eutsiz, baina txukun, laburdura nabarmenik egin gabe. Adibidez: *egin behar da*; eta ez «einbida» edo «einberda». *Berehala*; eta ez «bela». *Gauza*; eta ez «gauz» (*gauza bat*; eta ez «gauz bat»).

3. Bertsoa «zuka» hitz eginez hasten bada, «zuka» jarraitu eta «hika» hasiz gero, «hikari» eutsi azkenera arte; eta ez bertso berean batetik bestera salto egin edo aldatu.

4. *Errimak*: errima kontuan hitzak ez derrigortzea edo desitxuratzea da kontutan izan beharreko zera. Adibidez: *begi* eta *lege* erabiltzen baldin baditugu, bata «i»z bukatua eta bestea «e»z, ez du egoki ematen hitz hauek elkarrekin errimatzen jartzea «*begia*» eta «*legia*» eginez, azkenengo hau «*legia*» barik «*legea*» baita. Gauza bera gertatzen da, adibidez, *baseri* eta *aurre* hitzekin; batzuk elkarrekin errimatzen dituzte, «*baserrian*» eta «*aurrian*» eginez, baina azken hau «*aurrean*» da eta «*baserri*» hitzarekin errimatzean tranpa txiki bat egiten dau bertsolariak.

Errimak al bait aberatsenak egitea baloratuko da. Ez da komeni errimatzen diren hitzak gramatika-kategoria berekoak izatea; adibidez, ez du ondo ematen laurak edo hiru aditzak izatea: *daude / gaude / dirade / zaude*. Errima bi baino gehiago, bertso berean, aditz hutsez egitera jotzean, ez da bertsoaren legerik hausten, baina jokabide baztergarritzat joko genuke. Gauza bera esan behar errimatzeko atzizki bera erabiltzen denean. Adibidez: *banarekin / onarekin / Loidirekin / Manterolarekin* (Orioko balearen bertsoetatik hartuak). Bertsoren legerik hautsi gabe, baina errazkeriara jotzea litzateke hau. Ondorengo adibideak ere honelako zerbait adierazten du: *hitz egin / huts egin / atsegin*.

Honelako bi edo, bertso berean erabiltzea, tira!, baina guztiak edo gehienak horrela egitea nabarmenegi litzateke...

5. *Etenak*: hamar silabatako segidak egiterakoan, erdiko etenak ere badu zerikusirik kantatzeko dotoretasunari begira. Eta lerroaren bukaerako eten nagusiak zer esanik ere ez

Urbietan det apellidua

Jose Joakin izena,

orain dala ho/geita bost urte (erdiko etena lekuz kanpo)
mundura sortu nintzena...

Guraso haiek esaten zigu/- (lerro bukaerako etena hautsi)
ten leialak izateko

6. *Euskararen erabilera zuzena eta txukuna*: euskara menderatzen ez dutenen antzera, euskalgaiztoko eseretan erori gabe: laguna *ikusit dui*; eta ez «lagunari *ikusit diot*». Giltzak eman *dizkidate*; eta ez «giltzak eman *didate*» singularra eta plurala nahasiz).

7. Bertsoa kantatzeko denez, ongi kantatzea eta gai bakoitzari dagokion doinua hautatzen asmatzea, entzuleek bereziki eskertzen duten zera da.

Eta hona non eten zaigun haria zazpigarren mandamentuan, hamarrena heldu gabe. Geure esan beharrekoak hortxe agortu zaizkigu. Hauetatik zenbait alferriko oharrak izan daitezke edo zeharo jakinak. Hala ere jarri egin ditugu, entzule arruntari belarriko minik eman ez arren, epaileek, txapelketa batetan, zorrotzago jokatu beharra dutelako.

Mahai horretan ezertzea ohorea denik ezin uka, baina erantzunkizun handikoa eta larridura sortzen duena ere bai.

Bertso bakoitzaren balioa, beraren xehetasuna edo ñabar-durak zenbaki soil batetan doi-doi adieraztea ia ezina ere bada. Erizpide nagusietan bat etorri arren, nork bere ikuspide, joera eta gustoak izan ohi ditu. Beraz, guzti horrek badu zerikusirik eta eraginik bertsoaren ebaluaketa egite orduan. Kantitatea barik kalitatea neurtu behar denean, ez da batere erraza bakoitzari be-

rea ematea. «Non numerantur, sed ponderantur» esan ohi zuten latin zaleek. Horrez, gainera, estetikaren eremua ukitzen denean, duda-mugak ugaritu baizik ez dira egiten. Beraz, hein handi batetan subjektiboa ere bada epai mahaikoen lana: bertsoaren barne-muina edo, sakontasuna, hunkikortasuna, grazia, ironia etab. subjektibotasunaren esparru adierazgaitz horretan daudela dirudi. Honetan asko esan nahiko dute epaile bakoitzaren sentiberatasun, joera, gusto eta estetika-sen bereziak.



Bada, ordea, alde objektiborik ere: bertsoaren ageriko berezitasunak: neurria eta honi dagozkion etenak, sinalefa, dieresi eta sineresiak. Errimak eta oinak: potoak (hitz homonimoak pototzat jo ala ez). Euskararen erabilera zuzena: morfosintaxia: behartu gabeko esaldiak; hitzak txukun ahoskatuak; ahoz-ahozko bertsogintzan bereziki beharrezko eta bidezkoak izan arren, elipsi bortitzegi eta ilunegiak egin gabe. Neurria eta doinua norbere gogora edo aukeran uzten direneko bertsoan zailtasuna

ere epaileek ahaztu ezin duten zera da. Biak onak izanik ere, ez dute merezimendu berdina lau puntuko bertso batek eta bederatziko puntuko beste batek. Guzti hauek, bertso teknika eta euskal hizkuntzaren ezagupen ona duenarentzat aski erraz eta ongi neurtzekoak dira.

Txapelketa igandez igande jokatu zen lau herri ezberdinetan: Bermion hasi eta ondorengoak Lekeition, Zornotzan eta Igorren izanik. Lehen fase hau amaitu ondoren, puntuaziorik onena lortu zuten 13ak eta azken txapelketa nagusietan egindako merezimenduengatik zuzenean sartzen ziren Azpillaga, Amuriza eta Mañukortarekin batera, azken aurrekoetara joango ziren 16 bertsolari, jai bitan zortzinaka, Durangon eta Gasteizen final aurrekoak jokatzeko. 16 horietatik punturik gehien lortzen zuten zazpiak joango ziren Arriagako finalera, zuzenean pasatzen zen Jon Lopategirekin zortzikotea osotuz.

Lehen lau saioetatik onena Igorrekoa zela uste dut, Bermiokoa ere pare-parean zuela. Hemen polito abiatu ondoren, txapelketak beherakada nabarmena izan zuen Lekeition, Zornotzan berriro ere pixka bat gorantz egiteko. Final aurrekoak, eta itxaro zen bezala Durangokoak bereziki, maila on-ona lortu zuten. Aritz Lopategik sekulako ezustekoa eman zuen hemen, hiru hoberenen ondoan tartekaturik eta etorkizun handia iragarritz.

Bermioko saioa esanguratsua zen guretzat. Baita Durango eta Gasteizko final aurrekoak ere; eta zer esanik ere ez Arriagako finala, guztiz erabakikorra baitzen. Bermiokoa, txapelketako lehen saioa zelako, epaileok han hartutako erizpideari tinko eutsi behar genion ondorengo hiru saioetan ere, gorabeherarik gabe. Gorabcherak, bertsolarien kalitate desberdinak ezarriak izan behar zuten eta ez epaileen ebaluaketa-baldintzak, haizeen joera apetatsuak bezala, saio batetik bestera alda daitezkeelako. Final aurrekoa egun eta toki ezberdinetan jokatzen zenez, epaileek saio bietan galbahe berbera erabiltzea ezinbestekoa izan behar. Hotz-hotzean eta irme ihardun beharko genuen ozen ospetsuen lilurapean ez erortzeko, Durangoko saioak Gasteizkoak baino

entzutetsuagoak baitziren.

Entzuleen artetik, batez ere hauen artean zeuden bertsolarien aldetik heldu ohi ziren noizbehinka ezadostasunezko zurrumuruak. Ez asko, baina tira! Jartzen zituzten argudioak eztabai-dagarriak dira, gureak bezalaxe, baina eskuarki eritzi orokorrak jaulkitzen zituzten. Epailerek, ordea, bidezko denez, haiek kontutan hartu gabeko zertzelada asko harrapatzen genituela ohartu naiz. Adibide bat jartzearren, «mandamentuetan» aipatu ditudan xehetasunez gainera, X. Amurizak hizkuntza aldetik, bizkaiera maisuki erabiliz, txapelketa honetara egin zuen ekarpena kontutan hartzekoa da. Era berean Jon Lopategik bere saioretan erabili zuen hizkuntza aberats eta jantzia, (hari-harira zetozen adjetibo, izen eta aditzak tartekatuz) ez da nolana ahaztekoa. Beste aldetik, bertsolarien kritika horietan, beraien joera eta gustotara epaileak makur daitezela nahi balute bezalako zerbait nabaritzen...



Azkenez, auzi honekin bukatzeko, ohartxo bat gure metodoaz: mahaiko kide bakoitzak epaitzeko errazen, erosoan gertatzen zaion bidera jotzen zuen; ez genuen guztiok metodo berbera erabili beharrik. Nik neuk erabakikorrek ziren zenbakitxo horiek paperean ezarri orduko, bertsolariak kantatu ahala, oin guztiak idazten nituen beste paper batetan, alboan ikur edo zeinu grafiko batzu eginez; zeinu horiek, akats nahiz merituak adierazteko neure klabe bereziak baizik ez ziren. Horrela, bertsoa al bait zehatzen epaitzeko baliabideak neureganatu nahi nituen zenbakitxoak jarri aurretik. Horrez gainera, aldamenekoekin hitz labur batzu esatea ezamintan txuleta bezain beharrezko gertatu zitzaidan.

Gaiak

Txapelketa batetan zehar gai ugari eta era guztitakoak behar direla edonork daki. Bertsolari Elkarteko jende finari egokitu zitzaion, entzun dudanez, zerengin hori. Epai mahaikoei ere eskatu zizkiguten eta guk igorritako multzotik, batzorde batek egiten omen zuen hautaketa saio bakoitzerako. Gartzelako gaiak jaso zituen kexa batzuk: entzunegiak zircla, ez dutela nondik heldurik, desegokiak zirela eta abar. Finalekoaz, berriz, laudorioak baino ez zaizkit heldu.

Arriagako hiru ordu historikoak

Teatro dotore hori, oraindik dotoreago bihurtu zan bertsolariak eskaini ziguten zaio bikain horren bidez.

Hiru ordu bete-beteak bertsozaleen gozamenerako apropos eginak.

Azkenez hobereenen artean hobereena txapeldun. Inork inoiz merezi izan badu, Jon Lopategik merezi izan zuen, baina gainerako zazpiei ere buruan txapel bana ezartzeko gogoia ematen zuen, guztiak zein baino zein hobeto aritu baitziren.

Bertsozaleek aho batez zioten irteeran, urteetan Euskal Herri osoan gogoratzen den bertso saio guztien gailurra izan zela

Arriagako hau. Ez nuke erronkarik bota nahi, baina marka hori hor dago eta kostako da ontzea ezezik berdintzea ere.

Gogoeta hauen amaieran eritzi labur bat ematea egoki izango da: Aritz Lopategi ezik, beste ezusteko handirik ez da, nire ustez, gertatu txapelketa honetan. Hala ere hiru gauzatxo gaineratu nituzke: Arriagako ate-atean gertatu ziren Altzalei eta Moises Enbeita maila oneko bertsolari fin eta gustagarriak direla (ulergaitz gertatzen zait nola ez duten kantatzeko dei gehiago jasotzen). Elgetzu, Ajuria eta Arcitio-rentzat, txapelketa hau, bertsolari handien artean behin eta betiko kokatzeko bultzada izan dela. Azpalditik punta-puntan zebiltzan Bizkaiko (eta Euskal Herriko) izen ospetsuek, berriz, zer galdua izan arren, hortxe gailur-gailurrean irauten dutela, behin eta berriro euren maila bikaina erakutsiz.

Luis Baraiazarra